

06/13 ALKATETZA DEKRETUA

Busturian, 2013ko ekainaren 18an.

Kode Zibilaren 51. artikulua emandako eskumenak erabilita, XEDATU DUT:

Lehenengoa: Ziortza Bilbao Agirre, Busturiko Udaleko zinegotziari eskuordetuko zaio Unai Ateaga Hormaecha eta Eider Beaskoetxea Baraiazzarren arteko ezkontza baimentzeko eskumena 2013ko ekainaren 22an izango da ezkontza, udaletxean. Hala ere, epaileak ezkontza hori egiteko baimena eman beharko du.

Bigarrena: Osoko Bilkurari ebazpen honen berri emango zaio, egingo duen hurrengo batzarrean.

Hirugarrena: Ebazpen hau interesdunei jakinarazi baita eskumena eskuordetzen zionari ere, delegatzea onartutzat emango dela kontuan harturik, horren kontrako agerpena ez bada.

Laugarrena: Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da dekretua, horren berri izan dezan eta ondore egokiak izan ditzan, nahiz eta eskumen-eskuordetze honek indarra izango du Dekretu hau eman eta hurrengo egunetik hasita.

ALKATEA,